

PRENTSA OHARRA

Eusko Legebiltzarrak eta EuroBasquek antolatutako jardunaldia, Europako Eguna dela-eta

Astelehena, 2021eko maiatzaren 10a
Tomas Moro aretoa
11:30ean

Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko lehendakariak eta Irune Zuluaga EuroBasqueko presidentek eman diote hasiera Legebiltzarrean, gaur goizean, egindako ekitaldi instituzionalari, Europako Eguna dela-eta. "Europa berri baterako eztabaidak" Europar Batasunaren egoerari buruzko hausnarketari urtero betetzen zaion tartean, Eneko Landaburuk 'Europar Batasuna: bide onetik goaz?' hitzaldia eskaini du.

Azkenik, Irune Lasak 2020ko EuroBasque Kazetaritza Saria jaso du.

Eusko Legebiltzarreko lehendakari Bakartxo Tejeriak eta EuroBasqueko presidentea Irune Zuluagak eman diote hasiera, gaur goizean, Europaren Egunaren kariatara Eusko Legebiltzarrean izaniko ekitaldi instituzionalari.

Tejeriak, ekitaldia inauguratzeko hitzaldian, Europaren Etorkizunari buruzko Konferentzia izan du hizpide, eta ziur agertu da Europar Batasunaren etorkizuneko jardura eta eskumen-eredua "Europa mailako subsidiariorotasun-printzipioetan oinarrituta beharko lukeela". "Europak bere dibertsitatearekin eta aberastasunarekin koherentea izan behar baitu, behetik hasita goraino; eta hor izan behar du Euskadik", azpimarratu du.

"Eskubide indibidual eta kolektiboen errespetuan, eta eskubide sozialen errespetuan oinarritutako Europa bat " aldarrikatu ostean, Bakartxo Tejeriak azpimarratu du "Euskadik Europar Batasuna berreskuratzeko planaren partaide" izan behar duela, "next Euskadiz, gure etorkizunaz ari baikara, 'next generation' hori gure ondorengo belaunaldiak baitira".

Bestalde, Zuluagak esan duenez, "Europa eta mundu osoa, salbuespenik gabe, inoiz pentsatuko ez genuen unerik gogor eta larrienetako batean dago: osasun publiko krisi batean eta ekonomien kolapso orokorrean". Horregatik, Zuluagaren iritziz, "atzo formalki hasitako Europako Konferentzia inoiz baino beharrezkoagoa da, galdu ezin dezakegun aukera". Hala, adierazi du EuroBasque bertan izango dela, "Europaren etorkizunari buruzko eztabaidan euskal gizarte zibilari ahotsa emanez".





'Europa berri baterako eztabaidak' Eneko Landabururekin

Ondoren, 'Europa berri baterako eztabaidak' saioaren barruan, Eneko Landaburuk La Unión Europea: ¿vamos por bien camino? hitzaldia eman du.

Igor Filibi EuroBasqueko idazkari nagusiak aurkeztu eta moderatu du saioa.

Europar Batasunaren egungo egoera eta ezkortasun egoera aztertu ostean, Europaren etorkizunean sinesten duela azpimarratu du Landaburuk. "Etorkizun hobean sinesten dut, arriskuak eta erronkak indar politiko gehienetan identifikatuta eta integratuta daudelako". Hauek dira nabarmendu dituen erronkak: klima-aldaketari erantzuteko diagnostiko partekatua, gizarte- eta lurralde-desberdintasunak konpontzeko erantzunak. Testuinguru horretan, "Elkarrekin bizitzeko nahia ez badago, ez dago Europar Batasunik", esan du. Erronkekin jarraituz, gizarte digitalaren eta adimen artifizialaren aldaketa iraultzailea eta pandemia berrien arrisku berriak ere aipatu ditu.

Hamar urteko krisiaren ondoren, Landaburuk Europar Batasunerako "etorkizun handiko bi proposamen" azaldu ditu: 2020ko uztailleko erreskate plana eta Europaren etorkizunerako Estrasburgon atzo bertan hasitako konferentzia. Bere ustez, erreskate plana funtsezko prozesua da, "Ezin dugu onartu huts egitea, ez auzi ekonomikoagatik, baizik eta EBren elkartasun politikek huts egingo luketelako". Konferentziari dagokionez, arrakasta "eztabaida utopiko edo ideologikoetan sartzen ez bada" etorriko dela azpimarratu du, "Blokeo egoeretara soilik eramaten dutenak", gaitasun pragmatikoa erakutsiz eta "erabakitzeko prozesua arintzea" ahalbidetuko duten tresna juridiko eta finantzarioak hobetuz. Politika monetarioa eta euroa indartuko dituen atzerri politika fiskalaren alde egin du, nahiz eta gai honetan ezkorra dela onartu, "Estatu askok ez dute subiranotasun hori laga nahi".

Adierazi duenez, gobernantza-sistemari buruz hausnartu beharko litzateke, "Herritarrak eta gazteak mobilizatuz, erabaki behar duten organoentzat presio gisa balioko duten ideien eta proposamenen prozesu bat irekitzeko", ahalmen legegilea duten eskualdeak batzarrean sartzearen alde eginez.

Euskadiri erreferentzia eginez itxi du hitzaldia, "Euskadik baditu gauzak egiteko". Balioesten du euskal indar politikoak historikoki Europaren integrazio-prozesuan egon izana, Europaren aldeko gehiengoa baita, eta, horregatik, ondorioztatzen du "Euskadi errespetatu egiten dela bere ibilbide politikoagatik", eta balioa ematen dio Europako gaiari buruzko eztabaida interesgarrietan parte hartzeari.

Hitzaldia amaituta, eztabaida izan da jardunaldian parte hartu duten pertsonekin.





Kazetaritzako 2020 EuroBasque sariak

Horrez gain, jardunaldian Kazetaritzako 2020 EuroBasque sariak banatu dira.

Prentsa idatziaren atalean, 2020 EuroBasque Kazetaritza saria Irune Lasak irabazi du, 2020ko azaroaren 8an Berria kazetan argitaraturiko *Gurinezko mendien Europa hura* izenburuko artikuluarekin. Ikus-entzunezko kategorian, berriz, eman gabe geratu da saria.

Aita zuenari eta ekitaldian bertan izan den amari eskaini ondoren, sariak "poz berezia" ematen diola esan du Lasak, "uste dudalako neurri batean aitortzen duela Berrian egiten den ahalegina Europako Batasunaren eta Europako herrien inguruko gaiak lantzeko". Uste du gai mota horiek herritar askori "urrunak" zaizkiela, "baina jakinda euskal herritarren bizitza eta etorkizuna zenbateraino markatzen duten, saiatzen gara irakurleak ahalik eta ongien informatzen". Prentsako kazetarien lana ez dela erraza esan du Lasak: "gainera lanbide hau malkarragoa da euskaraz jarduten duten kazetariarentzat". Hala, EuroBasque saria berak bezala euskaraz lan egiten duten "prentsako langile eta lankideei" eskaini die.

Saritutako artikuluan, Europa nekazaritza sektorean integratzeak duen garrantzia landu du egileak, eta bereziki planteatu du Europar Batasunak Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) erreformatzeko egun duen erronka. Saritutako lanak Europar Batasunaren sorreratik azken erreformara arteko errepaso kronologikoa egiten du, eta nekazaritza sektorearen bilakaera nabarmentzen du, baita Europako nekazaritza politikaren esparruan horrek izan behar duen lekua ere. Gainera, epaimahaiak azpimarratu du gai horrek Euskadiko nekazaritzan duen garrantzia.

Ildo berean, elikagaien ekoizpena bermatzeko nahiz Europar Batasunaren independentzia estrategikoa indartzeko nekazaritza sektoreak duen garrantzia baloratu du epaimahaiak. Halaber, artikulua azpimarratzen du landa-munduak Europar Batasuneko kultura pluralari eta ingurumenaren ikuspegi iraunkorrari egiten dion ekarpena. Era berean, epaimahaiak kontuan hartu du Europako paisaiak zaintzeko eta mantentzeko artikuluan txertatutako ikuspegia ere.



NOTA DE PRENSA

Jornada organizada por el Parlamento Vasco y EuroBasque con motivo del Día de Europa

Lunes, 10 de mayo de 2021
Sala Tomás Moro
11:30 horas

La presidenta del Parlamento Vasco, Bakartxo Tejeria, y la presidenta de EuroBasque, Irune Zuluaga, han sido las encargadas de inaugurar el acto institucional celebrado esta mañana en el Parlamento Vasco con motivo del Día de Europa.

En el espacio que anualmente se dedica a la reflexión sobre el estado de la Unión Europea 'Debates para una nueva Europa', Eneko Landaburu ha ofrecido la conferencia 'Unión Europea: ¿Vamos por buen camino?'.
Por último, Irune Lasa ha recibido el Premio de Periodismo 2020 EuroBasque.

La presidenta del Parlamento Vasco, Bakartxo Tejeria, y la presidenta de EuroBasque, Irune Zuluaga, han sido las encargadas de abrir el acto institucional celebrado esta mañana en el Parlamento Vasco.

La presidenta del Parlamento, en su intervención inaugural, se ha referido a la Conferencia sobre el Futuro de Europa; y se ha mostrado convencida de que la futura actuación y el modelo competencial de la Unión Europea “deberían basarse en los principios de subsidiariedad a escala europea”. “Porque Europa debe ser coherente con su diversidad y riqueza, desde abajo hasta arriba; y ahí también tiene que estar Euskadi”, ha subrayado.

Tras reivindicar “una Europa basada en el respeto a los derechos individuales y colectivos, y en el respeto a los derechos sociales”, Bakartxo Tejeria ha hecho hincapié en que “Euskadi debe ser y es partícipe” del plan recuperación de la UE, “ya que estamos hablando de nuestro futuro; esa ‘next generation’ es ‘next Euskadi’, es nuestro futuro y el de las próximas generaciones”.

Zuluaga, por su parte, ha señalado que “Europa y el mundo, sin excepciones, se encuentran ante uno de los momentos más duros y graves que podíamos haber imaginado: una terrible crisis de salud pública y un colapso general de las economías”. La presidenta de EuroBasque cree “que la Conferencia de Europa que ayer se inició formalmente es ahora más necesaria que nunca y una oportunidad que no podemos desaprovechar”. Por ello, Zuluaga ha afirmado que “EuroBasque va a estar presente en este debate sobre el futuro de Europa, dando voz a la sociedad civil vasca”.





Debates para una nueva Europa con Eneko Landaburu.

Seguidamente, en el marco de los Debates para una Nueva Europa, Eneko Landaburu ha ofrecido la conferencia *La Unión Europea: ¿Vamos por buen camino?* Ha presentado y moderado la sesión el secretario general de EuroBasque, Igor Filibi.

Tras analizar la situación actual de la Unión Europea y el estado de pesimismo, Landaburu ha resaltado que cree en el futuro de Europa. “Creo en un futuro mejor porque los peligros y los retos están identificados e integrados en la mayoría de las fuerzas políticas”. Los retos que ha destacado son: diagnóstico compartido para dar una respuesta al cambio climático, respuestas para solucionar desigualdades sociales y territoriales. En este contexto, ha afirmado que “no hay UE si no hay deseo de vivir juntos”. Siguiendo con los retos, ha señalado también el cambio revolucionario de la sociedad digital y la inteligencia artificial y los nuevos riesgos de nuevas pandemias.

Después de diez años de crisis, Landaburu ha descrito “dos propuestas prometedoras” para la UE: el plan de rescate de julio de 2020 y la conferencia para el futuro de Europa iniciada ayer mismo en Estrasburgo. Opina que el plan de rescate es un proceso esencial, que “no nos podemos permitir que falle, no por la cuestión económica, sino porque fallarían las políticas de solidaridad de la UE”. Respecto a la conferencia remarca que el éxito vendrá “si no se entra en debates utópicos o ideológicos que sólo conducen a situaciones de bloqueo”, demostrando una capacidad pragmática, mejorando los instrumentos jurídicos y financieros que permitan una “agilización del proceso de decisión”. Aboga por una política exterior y fiscal que refuerce la política monetaria y el euro aunque se reconoce pesimista en este tema, “hay muchos estados que no quieren ceder esta soberanía”.

Indica que habría que reflexionar sobre el sistema de gobernanza, “movilizando a la ciudadanía, a la juventud, para abrir un proceso de ideas, propuestas que sirvan de presión a los órganos que tienen que decidir”, abogando por la incorporación de las regiones con capacidad legislativa en la asamblea.

Ha cerrado su intervención haciendo referencia al País Vasco, “Euskadi tiene cosas que hacer”. Valora que las fuerzas políticas vascas hayan estado históricamente presentes en el proceso de integración europea, una mayoría partidaria de Europa y por ello finaliza que “Euskadi es respetada por su trayectoria política”, poniendo en valor su participación en debates de interés sobre el tema europeo.

Finalizada su intervención se ha abierto un debate con las personas asistentes a la jornada.





Entrega del Premio de Periodismo 2020 EuroBasque

Durante la jornada, se ha hecho entrega del Premio de Periodismo 2020 EuroBasque.

En la categoría de prensa escrita, el premio de Periodismo 2020 EuroBasque ha recaído en Irune Lasa, por el artículo titulado *Gurinezko mendien Europa hura*, publicado en el diario Berría el 8 de noviembre de 2020. En la categoría audiovisual el premio ha quedado desierto.

Tras dedicar el premio a su madre presente en el acto y a su padre ya fallecido, Lasa ha reconocido sentir especial alegría por el galardón recibido, "porque creo que en cierta medida es un reconocimiento al esfuerzo que realizamos en Berría tratando temas acerca de los pueblos de Europa y la Unión Europea". Temas que piensa que resultan "lejanos a la ciudadanía vasca", pero a su vez, "tienen gran incidencia en su día a día y futuro". "Por eso tratamos de informar lo mejor posible a las lectoras y lectores". Lasa ha remarcado también que si trabajar en prensa escrita no es tarea fácil muchas veces, hacerlo en euskera lo hace más árido en ocasiones. Por ello, ha extendido el premio recibido a quienes como ella trabajan la profesión en euskera, periodistas y demás compañeras y compañeros del sector.

El artículo premiado trata sobre la importancia de la integración europea en el sector agrícola y plantea en particular el reto de la Unión Europea respecto a la necesaria reforma de la Política Agraria Común (PAC). El trabajo premiado hace un repaso cronológico desde la creación de la Comunidad Europea hasta la última reforma, y pone de relieve la evolución del sector agrario, así como el encaje que debe tener en el marco de la política agraria europea.

El jurado señala la importancia de esta cuestión para el sector en Euskadi. El artículo además valora la importancia estratégica del sector agrario, garantizando la producción de alimentos y fortaleciendo la independencia estratégica de la Unión Europea. Igualmente se subraya la contribución del mundo rural a una Unión culturalmente diversa y medioambientalmente sostenible, así como al mantenimiento y cuidado de los paisajes europeos.

